



Bertsio elektroniko honen jatorria:  
<http://www.jazzfree.com/jazz9/arrain/>

Klasikoen Gordailuan:  
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/L/LizardiUmezurtz.htm>

## UMEZURTZ OLERKIAK

**Xabier Lizardi**

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

## MAITEAREN APURÑOAK

### MAITEA

#### Poema-aria

##### I

Gaua (osaba) — Gazte'ren esnatzea — Liorko — Amona —  
Muno-txiki'n — Mollan (N'ren txalupa) — Getari'ra yoatea — Gora-  
dei.

##### II

Onuzki'ren billa — Sta. Barbara: Ondaurtz-abestia —  
Izkain'eruntz: Gazte ta Onuzki — Pelota partidua — Ondaurtiera itxa-  
soz: ereserkia.

##### III

Busti-aldiak mollan — Onuzki ta Gazte igarian — Paulino  
larrugorrian — Neskatxak gutaz errukitu — Osabak auzia: zearo aiena-  
tu ta nik iges — Gazte Maitea'ri aurkeztu: «iguzki iguzki maite»...

##### IV

Gazte ta Maitea elizan — Liorko'k Vez maite — Odolki'ren  
igiungarrikeriak (?) — Maitea'ri agur: malkoak — Itxasoan lagunak:  
Onuzki erotu — Ama Birjiña.

##### V

Irizar — Abertzaletasuna — Ondaurtz ikustera mendiz: lurrari  
atxiki ausiko ez banintzan — Euskera: dei — Ama: Mta. ta Liorko'ren  
artako azpikeriak — Ondaurtz'eko Ama Birjiñari otoi — Konpondu —  
Ezkondu goizean goiz, pake santuan.



**VI**

Gazte'k M. mindu iñoiz, Odolki ta Mta.'k ixuri-edena bide  
— Maitea gaixotu — Yaioberria il — (Ames: Maitea il — Gauilla —  
Illargi — Illeta bazkari — Praille).

**VII**

Ori amesa zan — Maitea osatu egin zan — Aur geiago izan  
zituzten — Etxebarneko biziera: mendira, olerki egitera; bakarrik —  
Gero maian etxekoen lagunarte atsegiña — Neguko gaua: zirriborro-  
ak — Maitea'ri irakurri — Lau aurtxoena — Bizitza-bidea ez da  
zearo garratz, — ez du beti eguzki, besteetan bezela (delak yartzen  
baitira bitarte. Ondaurtz, antziñako andregai artu-ez baten antzeko  
zait orain. Irizar'ekin egin ditut pakeak, an sortu baitira nere aur ta  
oIerkiak. Gaztetako oroipen zarrok berritzen ditudan artean onaa  
gizon eldu. Neguak elurrez zurituko gaitu, baiño nere naia, aur ok  
beti olaxe txiki irautea litzake.

**LEENENGO YALKIA: OPORRALDI  
ASIKIÑAK**

**Ama Gau Beltxeran**

Mertxika guria  
yaterakoan,  
ez duk leenen-ozka  
bezelakorik:  
ark gozo-sabela  
leerrarazten dik;  
ark bustitzen agoa,  
gaiñezkakoan.  
Berdin duk oporra:  
leenean, onen;  
agortzenago ta  
mikatzagotzen.

Gazte dugu gaurko  
mertxika-yabe.  
Bil ezak eskuan,  
egiok usai;  
ozka ta milixka,  
dukeiño garai:  
gaur asegin, badukek  
biar oiñaze...  
Ama Gau beltxeran  
geroz ernari,  
ekartzen al-ditun  
anitz aur argi!

Sapailloan zuti  
—gaurko gaugiro!—  
Gogo-soiñetan duk  
atsegin guri!  
Kezkok yaregiña,  
gaur Ondaurtz-aldi  
duk asia; gaur buka  
Irizar-aro.  
Yoan duk Negu beltz  
ikastaro zail;  
dei'zagun nagusi,  
Uda yaun orail!

\* \* \*

Ozkarbi zen gaua,  
bitxiz yoria:  
zillarpil larria  
ta diru xeea.  
Ots-ixillek, laztan  
batak bestea;  
illunak, emaztegai  
aukera argia;  
gau-oialak, zuta  
beltzez, zearra  
dirdariz: Yaungoikoak  
eio-bearra.



Apoen txirulak  
yoka diardu,  
maitemin apalak  
eragiña antzo.  
Lur-axalez gora  
yauzten da mintzo;  
ikusgarri da biur,  
mamia ar baitu:  
otsa maiztu-ala,  
gezi urdiñek  
ziztatua dakus  
illuna Gaztek.

Gaupean etziña,  
baratza, beean;  
aurrean, urruntsu,  
mendi-izkutua,  
illargiak ozta  
gain-argitua;  
etxerik, begi-erne,  
zenbait, tartean;  
baratzaren mugan  
torre bat, serail,  
oro beltz, zillarrez  
ertzak zurikail.

Gibeletik zer den,  
belarrieri  
galdetu. Itsaso-otsak  
ezaugarri du,  
beti-bat, ordea  
sarri-berritu.  
Iduriz dakusagun  
ez dena ageri:  
ondardi luzean ugiñek ari:  
gau-oiala astin,  
ta dirdaiaraziz.

\* \* \*

Gazte'ren oporra  
zearoko opor;  
iru illabeteko  
zer ta nora-nai!  
Aize baduk yare,  
baduk ere elai:  
eguzki-azpian ez  
Gazte-beste, iñor;  
naiz osaba Garto'k  
lan-lagun ustez  
udakide deitu,  
urtero oi-zunez.

Legegizon baitzen  
bera; ta Gazte  
artarako ari...

Oker larria,  
bion gaia izanik  
olerkaria!  
Gazte'ren gurasoek  
poza artzen dute,  
yakinik oporra  
dukela yantzi  
buruan xeeatuz  
zenbat-nai auzi.

Etzion Gazte'ri  
galbide orrek  
beldurrik ematen,  
bai-baitzekian  
zerk, udan, osaba  
zeramakian:  
legegoaz besteko  
zenbait yolasek:  
txirripio-eizak,  
txibi-arraintzak,  
yaun karramarroen  
atxitze gaitzak...



\* \* \*

Txirripio-eiza...  
Mendilauetan  
ondar-munoz muno  
makurka, geldi,  
eskuan su-izkillu,  
lepoa izerdi:  
*danba*, alako batean,  
*danbaaa...* birritan;  
keepean iguzki;  
ta ura soiltzean,  
an doaz txoriok  
onik, aidean!...

Txalupa geldian  
txibi-arraintza:  
urpean, deigarri,  
bitxizko korain...  
Ez al duk atxitu  
afaltzeko lain,  
ta, ai, ura goralarri  
ta barne dantza!...  
Baiña, itsaso bada  
zearo bare,  
osatzen al diat  
bazkaria ere.

Karramarroena...  
Au ere ez bigun!  
Ondarrean auspez,  
luze-luze sar  
arkaizpe doi-doi  
beso ta atzapar.  
An zegok karramarro;  
atzi dezagun;  
ez agiñez aurrez,  
sabeletik bai,

beatzik ondatu  
ez badugu nai.

Orrelatsu Gazte'k,  
aboan irri,  
du Ieena berritzen  
egunik-egun.  
Noizik-bein, osaba  
baduke lagun  
aurtengoan; ez, baiña,  
len bezain sarri.  
Surpean illauna  
dan-ezkerotzik,  
gizonak burua  
yare bear dik!

\* \* \*

Mendian, oillarrek  
elkarri «gabon».  
Loak ar-baratzan  
badoa, geldi,  
yaun katu eldekoi,  
ozta nabari.  
Gazte'k galde (artean  
goxo baitzegon):  
—Oera beartu  
nai, dagoneko?

Itzez ez, egitez  
erantzupena:  
bizpairu etxeek  
betazala «klixka»  
eratxi ditek  
Asistar-yoaleak,  
gaberdi-leena:  
anka aidean dula  
katua geldi:  
tan... tan... ots ozenak:  
gero... ixil aundi.



Etsi zun mutillak...  
 Barnera doa.  
 Ez pizten argirik...  
 (Eltxoen lotsa).  
 Susmo dut ote den  
 usu billosa,  
 ta usuago dukela  
 nagusi loa.  
 Or Ieio zabala...  
 Sar bedi lapur:  
 osturen ez dio  
 zorion-apur!

\* \* \*

Ama Gau beltxeran,  
 geroz ernari:  
 etorkizun-aurrak,  
 illun ala argi?...

## Gazte'ren esnatzea

Zoridunen etxeak  
 Iguzkik bai-baitakizki,  
 Gazte'ren leioz barne  
 besoa sartuki,  
 begiak uki...  
 Gordeka, ala datortzu  
 adiskide yostalari.

Etxetik urbillean,  
 bizpairu akazi luze  
 zeuden. Bertan, txoriek,  
 goizero, batzarre.  
 Naiz yai naiz aste,  
 auzoko belarriak  
 alperrean ez daudeke.

Batak begiak uki,  
 bestetzuek entzukia,  
 esnarazpide oro  
 du Gazte'k ukia.

Ez da yaikia.  
 Ametsik gozoena,  
 erdi-lotan yardukia.

Begiek, urre gar-uts;  
 entzumenak, ezti gorri;  
 amesmenak sor dizu  
 zelai zoragarri.  
 Or duzu yarri  
 mutilla: babesgai du  
 sagarrondo lore berri.

Baiñan, izana itxaro  
 ametsik ez bezelako!  
 Nagiak bota ditu;  
 esna duzu oro.  
 Zuti da aguro.  
 Goien, parrez igesi  
 ziyoan Iguzki zoro.

Goizaldeak irira  
 oi-duan ots gozo ñabar  
 aizeñoak Gazte'ren  
 belarrira dakar:  
 izketa-marmar,  
 zaunka ta asto-arrantza,  
 sardin-saltzaille deadar...

Esne-marmitek, *tinka*;  
 basagurdiak, *kirri*-ka!  
 leio batetik, parre;  
 kaletik, zirika;  
 ordu-erdika,



yoaleak, laburki,  
Yaunaren opa aldarrika...

Kalerik ez ageri,  
baratza dago tarteka;  
beso giarrez, yotzen  
al duzu, arrikay  
Gazte'z aurreka  
arako torre zarra,  
zuti, baratza non buka.

Ugarte deritzanez  
itxas-erdiko legorra,  
etxarte zeritzaken  
ikusgai-alorra. Lur emankorra;  
baratza-sail itxia;  
pake-barruti yatorra.

Gizalur-ezaugarri,  
Kea dugun mutil alai!  
Etxetik-etxe dabil,  
gain gorriez garai.  
Beti goranai,  
Kide goitar bearrez  
duzu biurtzen ortzigai.

## Liorko

Bat-batean, txistu-  
ots ezaguna,  
naiz igaz urrenik  
Gazte'k entzuna.  
—Kaixo, laguna!  
Bizkor, beraz?... —Yaufüü  
au duk eguna!

Liorko zun Gazte'k  
izketakide,  
karraxi gaziak  
adiraz-bide:  
eskuz biltzeke,  
mintzoak urruna  
nekez dabilke.

An ageri duzu  
leiardi baten,  
okotz-masailletan  
belar-ebaten...  
(Aparra yaten,  
obeto dirudit  
ari ote den...)

Adiñak berekin  
dakar legea:  
bizarra labur, ta  
gizon-ustea  
luze-luzea  
Muño oiek ebaten  
baduk nekea.

Gazte'ren kolkoko  
adiskidea.  
Elkar-gabe dute  
negu: udatea,  
elkar-arte.  
maiz gogora dute  
batak bestea.

Eguntsu beretan  
ikastaldiak  
buka-ta, ditugu  
Ondaurtz atziak.  
Yaioterriak  
asetzen dizkie  
biotz-begiak.



Izketa luzerik,  
 nabarmenean,  
 euskaldunak ez du  
 oi, maizenean.  
 Oiek, maiean  
 elkarri begira:  
 bizpairu, urtean.

Argatik, arira  
 usu yo dute,  
 alkarri galdetu  
 «non» ta «noiz arte»  
 —Berealaxe!  
 —Muno-Txiki'n nai duk?  
 —Nai? Nik ala ustel

Bekaitzez Iguzkik  
 begira die:  
 —Zuen yolas-lagun  
 pozik nentorke...  
 Pozik, alare,  
 zeregin estu au  
 ez banu lege!...

## Amona

—Iguzki, Iguzki maite,  
 lillura zoragarria,  
 gaurko goizalde diat,  
 barteko gauaz naaste,  
 oporraldi leenenkia!  
 Argi zak, gaur bezala,  
 argi zak nire bizia;  
 barne-egarri bat diat,  
 argi zadak iturria.

\* \* \*

Otoi au egin arte  
 gezur-yainko goriari,  
 norbait dizu sumatu,  
 xee ta bixkorrik, beean,  
 urrats usuz ibiltari.  
 Amona du. Gaixoak  
 eskuan dakar yanari,  
 artirin-orea ta  
 artale gainez-lxuri.

Andre agurgarriak  
 amets etxeoia du min:  
 azak eta tipulak,  
 udare, marrubiak,  
 arrautz-oillo ta urde... «zikin».  
 Yatorriz izan arren  
 kaletar andre-pinpirin,  
 eusko larre-zumoa  
 zaiñetan dizu berekin.

Mezetatik etorri-  
 berri. Yantzi beltz txukuna  
 soinean: manteliña  
 doi ken... Ala baitzien  
 oilloeri maitasuna!  
 Billoba zaarrenaren  
 leiora begirakuna  
 yasoaz, itz ezkiez  
 onetsi zion eguna.

Baiña, mutil, atorra  
 duk, utsik, gerri-gaiñetik?  
 Goizaldeko oxkirria  
 xital dala! Bear duk  
 beldurra, neurriz bederik.  
 Ta, gosaltzeke?... Yanak  
 osasuna gordetzen dik,  
 motel! Ator: etzegok  
 gosearekin yolasik.





Gazte'k —egi dasagun—  
ez du birimiña beldur;  
urdail-zorroa ere,  
gosariak uts-arren,  
artean etzaio ximur.  
Ezpal berezkoz baiña,  
mutilla dugu naiko zuur:  
iñork laztandu nai-ta,  
ez akiok egin uzkur.

Murgildu duzu uretan,  
gabe baitzegon, artean.  
Amonak orea-ta  
bakar gorrian laga,  
ta atzera dator bidean.  
Oilloak tinko, baiña  
billoba are, biotzean:  
aien gosek, itxoin;  
onenak etzezakean.

Badator beera Gazte,  
goiko sukalderi muzin.  
Ezpaiñak ximurtuki  
amona dabil: ez duk  
aren ondoan atsegin!  
—Neskame bargazta, non?  
Ta alabak, non?... Oro berdin!  
Erdi-itzalia sua,  
ezin esneak irakin!

An dabiltzu gaixoa  
zerbaiten billa su ta gar,  
sutatik ezin baitu  
esnerik katillura  
atzapar uts gorriez ar!  
Apalak irauli ta  
zoko guzietan aztar:  
eskuan burruntzali...  
ta aren eske... zora bear!

## Muno-Txiki

Non-elkarra, ta noiza, are,  
tiñel daduzkate:  
Muno-Txiki'n bil ditugu  
Liorko ta Gazte;  
ondarraz aurre,  
yardun gozoari bekiote.

Ikus-berrikoak labur,  
bizkarrekoz naste;  
bai-baita an zerk begimindu  
naiz bata naiz beste...  
Ixil da Gazte;  
laguna, ixil; ixil-ederreste!...

Ederberak xerbeldurik,  
ardoa bailuten,  
luze-itotako Ondaurtz-miñak  
eztanda zegien...  
Nork-bere barnen  
nabaria, mintzoz dute yazten.

Itsasoa zabal dager  
lerro zuriz ertza;  
zenbait bustizale goiztar  
gogara dabilta.  
Gazte da mintza,  
aboa ainbat zabaliz biotza.

—Gogoa azten zaidak emen  
yan-asez azia:  
begi-zuloek ar-ala  
naro duk argia:  
au dik ogia  
idurimenak; au, edarial!



Begi-baxterretik irri  
lagunak dagio;  
osatzaillegaia izaki,  
saillai dakio  
yakin-yario;  
olertiaz axolik ez dio.

—Gezak eiozko bisutsa  
emen duk berezi;  
beste inon ez ainbatean  
odol-bixigarri!  
Ttantta bat, gazi,  
azal-txulo banatan dik yarri.

Elkarren leian dituzu  
korapillatuak,  
nor baiño nor piztenago  
ametsaren suak;  
aien aipuak  
mordoka darite elkar-lotuak.

## Gora-Dei

Orra, uste gabe, yaunak,  
ipui bat asia:  
antzea bezain, naski,  
gaia dut urria...

Mutilletako poza  
ta axolakabea;  
amets ezta dela  
leenen-maitatzea.

Nola baitan astuntzen  
gerora bizia;  
ta zein dugun bearra  
noiznai goi-argia.

Edozein lan asteko,  
Yaunari biotza,  
areago, txit bainaiz  
artarako motza.

Yaungoiko on,  
euskaldunon betiko yabea,  
indazu nere ipuia  
taiuz yalkitzea.

Ez bezakida abotik  
itz gaiztorik eror;  
ez bedi nere esanik  
iñorentzat galkor.

Ta zuk, euskera eder,  
mintzo zaar yoria,  
barkako aal didazu  
nire ausardia...

Oroitzapen maiteenen  
ontzia, zere urrez  
landu nai baitut... Landu,  
nire esku baldarrez!

## BIGARREN YALKIA

### Onki'ren billa

Onki'ren zoria  
bestelako zan.  
Uztail naiz Azaro,  
ark beti du lan.  
Sartu gaitean,



oin laburrez,  
aren aItaren olan.

Matazak arildu,  
txirrikak bete...  
Moxorkak aiñezka  
ernal bezate.  
Ai zenbat neke,  
alperrok atorra  
yazteren truke.

An dabil aiñezka  
ezker-eskubi.  
Zuta ta zearra  
lotuz elkarri,  
eunduko sarri  
eundegi-ardatzak  
bil duan ari.

Olaren buruzko  
eragillea  
bazter-gelan dago.  
Aren nekea!  
Esku betea  
kaskoan: sudurra  
leuntzen, bestea.

\* \* \*

Aurreko leioko  
goi-bazterrean,  
armiarma ari da  
egiñalean.  
Noizik beñean,  
ari so-dagio  
argi eskean,  
ura balta eule  
zar-zarrenik an.

## Ondaurtz-abestia

Ondaurtz! Becaan dut agiri,  
neskatx polit bat iduri...  
neskatx polit bat iduri...  
Erdi-etziñik txairo baitago,  
begi zabaletan argi,  
ezpain gorrietan irri.

Ondaurtz! Itsasoa ataurre,  
ondardia atari-lege...  
ondardia atari-lege...  
Damasko-oialki urdin yoriak  
ertzeko litsean urre.

Ondaurtz! Erdi-arrantzale.  
Erdi-nekazari ere...  
Erdi-nekazari ere...  
Ta alaz guziaz ere kaletar,  
kaletar apaindu-zale:  
baserri, itsaso ta kale.

Busti, Ondaurtz, oin eta zango.  
Kulixkak ez gogarago...  
Kulixkak ez gogarago...  
Lirain-askiak agiri ditun,  
Ondar gorri ezea antzo,  
gari elduaren margo.

Argatikan azala dun  
erreez batera legun...  
erreez batera legun...  
Euskal-irukoitz ziñen yatorra!  
Kaletar, lugin, arrandun...



## LAUGARREN YALKIA

### Maitale Berriak

Eguzkiak orailen adatsa dunean,  
 ikus bide-dituzu, eguras-bidean,  
 inguma bi xurizta, lur apaindu-gaiñez  
 lorez-loreko ibilli gozoak egiñez.

Ezin oar txoroak zerk elkarrengana  
 darakartzien. Baiña, nerez dakidana:  
 zorion uts geroak letsiken unerik  
 aien aldi laburrak eztizu besterik.

Nork lesaieke poza laister dutenik il?  
 Oiñaze-eriotzak nork ain ditutela urbil?

\* \* \*

Alatsu baizebiltzen Maitea ta Gazte,  
 etzioten elkarri aitor «ene maite»  
 ta, alaz guziaz ere, maitezko mintzoak  
 betidanik zerizten biñoen aboak.

\* \* \*

Beñola, bazkalondo sargori zelarik,  
 urre egoki baitziren Asistarra'netik:  
 —Maitea, Yainko onari otoi bagengio  
 eskariak elkartuz... —Gazte'k galde dio.

(Biotzak ala agintzen baitzion, elkarren  
 arteko lokarriak zaillago zitezen).

Pozik —erantzun zion Maitea'k— Goazen.  
 Ta, masailak gorrituz (zerek al-zekien!):  
 —Baiñan eska-bearrik zer dugu, biona?  
 Ta mutillak, zalantzez: —Elkar-zoriona...

«Elkar-zorion» ori etzan soindun ume,  
 lur kiskali lurruna bezain mamitzeke.  
 Zorionago zer nai anartea baiño?  
 iraun aal-balezaie biziak arteño!

Maitetasuna dator azi iAutu batez,  
 guziok baitaukagu barnean yaiotzez:  
 ez edozein eguzkik ernerazgarria,  
 autuaren begiek bear dute ukia;  
 ta oartzen ez gera danik ernetua  
 arik eta biotz dan arte lorenua.

\* \* \*

Ur onetsia Gazte'k eskeñi: Maitea'k  
 beatz zurigorriak dardarez beteak  
 Mutillaren begiak noiz itsatsi zaizka  
 ordun ainbat sakonki, ordun bezain tinka!

Maitari biak, beren urratsak neurturik,  
 sartu ta yarri dira belaunbikoturik.

Yainkoaren etxea erdi-illunik dago,  
 aur-loa bera baiño pakez beteago.  
 Ateko sargoriak sarbiderik ez du:  
 oxkiro biguin batek batzarre dagizu.

\* \* \*

Yauna'enean dagoan ixiltasuna,  
 otoitzai ego meeak ematen dizkana!..  
 Ixiltasan bizia, biotz-taupa duna;  
 ez alegia illerrian egoten dana.

Gazte otoi luzeetan asi baiño leen,  
 xerbelduxe baitzegon maite-ardoarren,  
 iraulka zebiltzian bazter orotara  
 begi yakinbearrak, oroien gogara.



Etxeko sutondotik alde ibilli-ondo,  
oroigarriz betea dakusazu oro:  
Gabon-afariarena bezain gozoa  
leenaren lurruna zaizu gogoan eda.

Atoz baratz-leiora ta ikus goi-zokoak...  
Iñara-kabion erakarki gozoak!  
Leenkari miñagorik ezpaitu geroak:  
Iñara-kabi zaarrok, urtero beteak,  
iñoiz udaberrien lekuko maiteak.